

BANDOA

Andina Reges Pereira de Brito Mungiako herritarren hilketa dala-eta, eta bidebako heriotza horren aurrean gure gaitzespen argia erakusteko, Udalbatza honek, gaur, 2014ko martiak 18, Ez-ohiko eta premiazko Osoko Bilkura egin dau eta, udal talde politiko guztiak bat egin eta adostuta, aho batez onartu dau ondoko adierazpena:

ANDINA REGES PEREIRA DE BRITO MUNGIAKO AUZOKIDEAREN HILKETA GAITZESTEKO ETA KONDENATZEKO ADIERAZPEN INSTITUZIONALA

Mungiako herriaren ordezkari dan Udalbatza honek ozen gaitzesten dau gure auzokidea izan dan Andinaren heriotza, indarkeriazkoa eta bidebakoa, eta gutziz kondenagarritzat eta arbuigarritzat jotzen dau.

Era berean, biktimaren alabari eta semeari, familiakoei eta adiskidei alkartasun osoa eta laguntasuna eskaintzen deutse, eta Udalak dituan baliabide guztiak euren esku dagozala adierazoten dau.

Gertatutakoaren larritasuna kontuan hartuta, barriro bere Udal honek zera azpimarratu gura dau: andrazkoen eskubideak kaltetzen edo urratzen dituan edozein indarkeria matxista eta sexu erasoren aurrean, Udal honek **“Zero Tolerantzia”** daukala eta eukiko dauela aurrerantzean bere.

Andrazkoen kontrako indarkeria andra eta gizonen artean dagoan bardintasun faltaren ondorioz latzena da, eta emakumeen integritate fisiko eta moralaren kontrako eraso bortitza. Eta, beraz, giza eskubideen urraketa larri eta jasan ezinekoa da.

Gizonezko batzuentzat andrazkoak menpean eukiteko tresna bihurtzen da indarkeria, emakumeak gizartean oraindik bere indarrean dagozan genero-arauak aldatzen edo apurtzen ahalegindu ez daitezkan erabilten daben tresna.

Hori dala-eta, atzera bere, zera gogorarazo gura deusagu gizarteari: jasaten dogun gaixotasun honi danok **alkar hartuta erantzun behar deusagula**, erakundeok eta herritarrok batera, guztion ardurea da-eta. Eta horretarako, ozen esan eta salatu behar doguzala indarkeria edo gogorkeria matxistaren zantzu guztiak, ezelango bildur barik.

Konpromiso horri erantzunez, **Mungiako Udala akusazino pertsonal modura agertuko da** Andinaren hilketa argitzeko prozedura judizialean, bere familiaren eskubideak bermatu ahal izateko eta, Mungiako herriaren ordezkari modura, Andinarentzako justizia eskatzeko.

Udal honek, herri honetan dagoan alkarte-sareagaz eta Andinaren lagunakaz eta hurkoakaz batera, dei egiten deutse herritar guztiei **gaur, 19:00etan, Udaletxearen ondoan egingo dan 15 minutuko Alkarretaratze Isilean parte hartzeko.**

Ante el asesinato de la vecina de Mungia **Andina Reges Pereira de Brito**, y como muestra de nuestra más rotunda condena ante su injusta muerte, este Ayuntamiento, reunido en Sesión Plenaria Extraordinaria y urgente convocada en el día de hoy, martes 18 de marzo de 2014, acuerda aprobar con la unanimidad de todos los grupos políticos municipales, la siguiente

DECLARACIÓN INSTITUCIONAL DE REPULSA Y CONDENA POR EL ASESINATO DE NUESTRA VECINA ANDINA REGES PEREIRA DE BRITO

El pueblo de Mungia, y en su representación la Corporación Municipal, condena con absoluta rotundidad y expresa su total rechazo e indignación por la violenta e injusta muerte de nuestra vecina Andina.

En la misma medida, muestra su plena solidaridad y cercanía con la hija e hijo, familiares y amistades de la víctima, a quienes ofrece todos los recursos y medios municipales disponibles.

Ante la gravedad de los hechos ocurridos, reitera una vez más su firmeza en mantener una **actitud de Tolerancia Cero** ante cualquier manifestación de violencia machista o agresión sexual, que menoscabe y/o violente los derechos de las mujeres.

La violencia contra las mujeres es el símbolo más brutal de desigualdad entre mujeres y hombres en nuestra sociedad y supone un serio atentado contra la dignidad y la integridad física y moral de las mujeres, y en consecuencia, una grave e intolerable violación de los Derechos Humanos.

La violencia machista se convierte así, para algunos hombres, en una herramienta de intimidación dirigida hacia las mujeres para que no desafíen ni transformen las normas de género vigentes.

Recordamos por tanto la responsabilidad y la necesidad de **luchar de forma conjunta** contra esta lacra social desde todas las instancias de la sociedad, instituciones y ciudadanía, alzando la voz y denunciando sin miedo cualquier atisbo de violencia y/o coacción machista.

En asunción de este compromiso, el Ayuntamiento de Mungia ha decidido **personarse como acusación particular** en el procedimiento judicial que se inicie por el asesinato de Andina, con la intención de preservar los derechos de su familia y, en representación del pueblo de Mungia, pedir justicia en su nombre.

Este Ayuntamiento, conjuntamente con el tejido asociativo del municipio y el círculo de personas cercanas a Andina, **hace un llamamiento a la ciudadanía para que tome parte en la Concentración Silenciosa de repulsa** que, durante 15 minutos, tendrá lugar hoy por la tarde, a las 19:00 horas en las inmediaciones del Ayuntamiento.

Eta amaitzeko, gure herriaren doluaren erakusgarri, Mungiako Ma morez estalita eta lutu-ikurra jarrita egongo da aste honetan.

Por último, anunciamos que, en señal de duelo, la M de Mungia permanecerá cubierta de morado y con crespón negro durante esta semana.

Badakigu, bai, gure herrian alkarbizitza lortzeko bide bakarra alkarrenganako errespetua dala, danon arteko errespetua, gizon eta emakumeen artekoa; eta, era berean, danok garala arazo latz honen urtenbidearen erantzule. Horregaitik egin dogu Adierazpen bateratu hau eta horrexegaitik eskatzen deutsegu Mungiako herritarrei bat egiteko holango egoeren kontrako salaketa sendo eta baketsuagaz, eta, batez bere, biktimaren familiari eta lagunei laguntzeko, guztion alkartasuna eta berotasuna sentidu daien.

En la confianza de que sólo el respeto mutuo entre todos y todas, hombres y mujeres, posibilitará la construcción de la convivencia en nuestro pueblo y de que todos y todas somos también parte de la solución a este grave problema, elaboramos esta Declaración pública conjunta y pedimos a la población de Mungia que se sume al rechazo firme y sereno de este tipo de situaciones y acompañe, ante todo y sobre todo, a la familia y amistades de la víctima, transmitiéndoles en todo momento su afecto y apoyo.

Mungian, 2014ko martxoaren 18an
ALKATEAK

Izaskun Uriagereka Legarreta